

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak herri-lurrak bost udalerritan desatxekitzea baimendu du

*Operazioak sustatzen dituzten erakundeak Barasoain eta Baztango Udalak eta Etxeberri, Irurre eta Orokieta-Erbitiko kontzejtuak dira*

Martes, 26 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak baimena eman du Barasoain eta Baztango Udaletan eta Etxeberri (Arakilgo Harana), Irurre (Gesalatzeko Harana) eta Orokieta-Erbitiko (Basaburua) kontzejuetan herri-lurrak desatxekitzeko.

Desatxekitze horien xehetasuna honako hau da:

**Barasoain.** 3. zenbakiko industrialdeko 88. partzelari dagozkion 1.560 metro koadroko desatxekitzea, Mendiariako parajearen. Desatxekitzearen helburua lursailen erabilera Acciona Energía SA enpresari lagatzea da 10 urteko eperako, urtean kanon bat kobratuz, 66/12 kv-eko estazio elektriko bat instalatzeko, Barasoaingo eremu eoliko esperimentalak ebaluatze aldera.

**Baztan.** 9. zenbakiko 200 eta 300 partzela guztiei eta aparte 299. partzelari dagozkien 19.676 metro koadroko desatxekitzea. Desatxekitzearen helburua da, 3. industrialdeko 156 eta 166 partzelatan desatxekitutako herri-lurrak jabetuko 23.712 metro koadroengatik trukatzeko, Kasamberro parajearen, 74. industrialdeko 11, 12 eta 57 partzelak Zokoa parajearen, eta 144 eta 178 partzelak 75. industrialdean Jinko Erreka eta Zokoa parajeetan, hurrenez hurren, herri-lurren masen barnean zenbait gune kentzeko xedez.

**Etxeberri.** 4. industrialdeko 31. partzelari dagozkion 130,25 metroko desatxekitzea, Madelenzuloko parajearen. Helburua lur hori Sociedad Agraria de Transformación (SAT) nº 653 NA Etxeberri Ganadutegiaren jabetzako 118,84 metroengatik trukatzeko da, Bidapea parajearen 4. Industrialdeko 37. partzelari dagozkionak, bide publiko bat desbideratzeko asmoz.

**Irurre.** 2. zenbakidun industrialdeko 3087 partzelako 404 metro koadroko desatxekitzea San Martingo parajearen, haren erabilera Henri Lenaerts Fundazioari lagatzeko 20 urtez, 1971 eta 2006 artean (hil zen urtea) Irurren bizi izan zen eskultore belgikar horren obra atari zabaleko museo batean instalatzeko (Gesalatzeko Harana).

**Orokieta-Erbiti.** 8. industrialdeko 49. partzelako 4.789 metro koadroko desatxekitzea Bordako Etxeko parajearen. Desatxekitutako lurren zati bat - 4.296 metro koadro - 8. industrialdeko 260. partzelari dagozkion jabetuko 13.710 metro koadroengatik trukatzeko da. Operazio horren helburua kontzejuko herri-lurren azalera handitzea da eta mugen arazo bat konpontzea. Gainerako 493 metro koadroak etenda geratu den bide bati jarraipena emateko erabiliko dira. Operazio honen helburua

kontzejuaren herri-lurren azalera handitu eta mugen arazo bat konpontzea da.